

Bullying-aren kontrako ekimen hau 2 ardatzetan sustengatzen da:

- Irakaslearentzako administratzailea.
- Ikasleentzako aplikazioa.

## **IRAKASLEENTZAKO ADMINISTRATZAILEA**

Administratzaile honi esker, zure ikasleei inkestak bidali ahal dizkiezu. Inkesta horien bitartez, ikasleren batek bullying-a edo bazterketa pairatzen duen ikusi dezakezu.

- Galdeketa bat sortu:

Lehenik eta behin, klase bat sortu behar duzu. Horretarako Gela zerrenda deituriko atalean Gela sortu botoian sakatu.

Ondoren gelaren izena idatzi eta sortu botoiari sakatu.

Hurrengo pausua klaseko ikasleak sortzea da. Horretarako Ikasleen zerrenda atalean Ikaslea sortu botoian sakatu.

Orain ikaslearen izen-abizenak idatzi behar dituzu. Gero, gela aukeratu (aurreko atalean gela bat baino gehiago sortu baduzu zerrenda honetan agertuko da), eta kode bat idatzi (ikasleak kode hau idatzi beharko du bere aplikazioan galdeketara sartzeko). Kodea zuk zeuk sortu edo automatikoki eratu. Azken pausua ikaslea gordetzea izango da.

Ikasleen zerrenda atalean gela aukeratuz gero, gela horretara atxikitutako ikasleen zerrenda agertuko da.

- Zerrendaren azalpena:

Begia: Ikono hau agertzen baldin bada, ikasleak inkestari erantzun dio. Ikonoan sakatzen baduzu, emandako erantzunak ikusiko dituzu.

Arkatza: Ikono honetan klik egiten baduzu baduzu, ikaslearen fitxa alda dezakezu.

Borragoma: Ikono hau sakatzean, ikaslea ezabatuko da.

Aipamenak: Ikaslearen izena sakatzean bere ikaskideen galdeketetan zenbat alditan aukeratu den ikusiko dugu. Aipamen kopuru txikiak edo aipamenik ezak bazterketa edo bullying-a adieraz dezake.

## IKASLEENTZAKO APLIKAZIOA

Ikasleek aplikazioa Google Play-tik edo iTunes-etik dohainik beheratu dezakete.

Ikasleek euren aplikazioan 4 atal aurkituko dituzte:

- Bideoak: atal honetan 3 bideo aurkitu ditzakete:
  - o Bullying: bullying-a ekiditeko bideoa.
  - o Ciberbullying: ciberbullying-a ekiditeko bideoa.
  - o Segurtasuna Interneten: Interneten seguru ibiltzeko zenbait aholku.
- Galdeketa: Irakasleak egindako galdeketara sartzeko atala. Ikasleak kode bat sartu beharko du galdeketara sartzeko. Kode horri esker, administratzaileak ikaslearen erantzunak gordeko ditu.
- Erakundeak: bullying-aren aurka egiten duten zenbait erakunderen telefonoa eta web-orria.
- Laguntzarako dokumentuak: Atal honetan ikasleek Eusko Jaurlaritzak egindako zenbait dokumentu eta argibide ikusteko aukera izango dute.
- Argibideak: Aplikazioa azaltzen duen atala.



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN